


# FUNTSEZKO JARDUERAK

Proiektu bat aurrera atera ahal izateko hainbat gauza hartu behar dira kontuan, bestela aukera gutxi egongo lirateke proiektuak arrakasta izan dezan. Ezinbestekoak diren baliabieen artean aurkitzen dira funtsezko jarduerak, hauek ezinbestekoak dira empresa baten negozio ereduak funtziona dezan.

Ekoizpenik egongo ez balitz ez zen proiekturik egongo, beraz ezinbestekoa da modu egokian ekoiztea. Proiektuaren hasieran, nola ez, produktua ekoiztu beharko genuke. Ekoizpena hasi aurretik gure produktuaren diseinua eduki beharko genuke. Behin diseinua eginik, ekoizten hasiko ginateke, honetarako beharrezkoa izango litzateke produktua sortzeko leku bat, hau da, pabelloi bat (ez handiegia) alokatu beharko genuke eta piezak fabrikatu ahal izateko makinak beharko genituzke.



Nola ez, gauza guztietan gertatzen den bezala proiektuarekin aurrera egin ahala arazoak sortuko lirateke, eta oso garrantzitsua da gauzak ongi ateratzeko aurrez sortutako arazoak lehen bailen konpontzea. Arazoak ahalik eta gehien saihesten saiatuko ginateke, baina ez genituen guztiak konponduko, beraz produktuak akatsenbat izango balu ekoizpena gelditu egingo genuke eta taldekideak bilduko genituzke arazo horri konponbidea eman ahal izateko konponbide bat bilatzeko.

Plataformako edo sareko jarduerak ere oso garrantzitsuak dira enpresa batentzat. Honen bidez erakarriko ditugu bezereok, beraz lanaren zati bat sareko jardueri eskaini beharko genieke. Gure produktuaren berrien eta aldaketen berri emango genuke. Honi esker arrakasta handia edukiko genuke produktua saltzerako orduan.



Nahiz eta produktuaren gauza gehienak guk egingo genituzkeen, zati batzuk beste enpresa batzuen esku utziko genituzke. Produktua ahalik eta kalitate handienekoa izan dadin elektrizitate arloan aditua den enpresa baten esku utziko genuen bateriaren hainbat zati egitea. Hori bai, enpresa hazi ahala produktuaren zati guztiak guk geuk egingo genituzke.